

FORU DEKRETUA EGITEKO PROIEKTUA. FORU DEKRETU HORREN BIDEZ INDARGABETUKO DA EKAINAREN 30EKO 182/1997 FORU DEKRETUA, ZEINAK ARAUTZEN BAITITU KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK JENDAURREKO SALMENTARAKO INSTALAZIOETAN ESKAINTZEN DEN AUTOMOZIORAKO GASOLINA ETA GASOLIOAREN HORNIDURA ZERBITZUAN.

## 1. ARAUDIAREN MEMORIA

Xedapen honen gaiak arautzen dituzten araudi-aurrekariak.

- 182/1997 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa, zeinak arautzen baititu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak jendaurreko salmentarako instalazioetan eskaintzen den automoziorako gasolina eta gasolioaren hornidura zerbitzuan.

## 2. MEMORIA EKONOMIKOA

Proposatutako arauketak ez dakar berekin ez gastuen handitzerik ez sarreren murrizketarik.

## 3. JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Azaroaren 23ko 17/2009 Legearen bidez ekarri zen Espainiako antolamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua. Aipatutako legea zerbitzu jardueretan libreki hasi eta aritzeari buruzkoa da.

Aipatutako arauko 9.2 artikulua honako hau ezartzen du: *“zerbitzu jarduera batean hasi eta aritzeko nahitaezko baldintza guztiek bat etorri behar dute honako irizpide hauekin:*

- a) Diskriminatzaileak ez izatea.*
- b) Interes orokorreko arrazoi premiatsu batek justifikatzea.*
- c) Interes orokorreko arrazoi premiatsu horren arabera proportzionatuak izatea.*
- d) Argiak izatea eta zalantzarako aukerarik gabeak.*
- e) Objektiboak izatea.*
- f) Aldez aurretik publikoak diren egitateak izatea.*
- g) Gardenak eta irisgarriak izatea.*

Orobat, arau beraren 11. artikulua, *“Salbuespenezko aplikaziorako baldintzak, aurretik ebaluazioa behar dutenak”*, honako hau ezartzen du: *“zerbitzu jarduera batean hasteko edo hartan aritzeko araudiak ezin ditu honelako baldintzak jarri:*

f) *Plantillaren osaerari buruzko baldintzak, esaterako langile kopuru zehatz bat izatea; izan plantilla osoari dagokionez edo izan kategoria zehatzetan, edo jatorri edo modalitate zehatz batekin kontratatu beharra.*”

Artikulu horretako 2. apartatuan hau ezartzen da: *“salbuespenez, zerbitzu jarduera batean hasteko edo hartan aritzeko baldintza gisa jar daitezke aurreko apartatuko beharkizunak baldin ez badira diskriminatzaileak, interes orokorreko arrazoi premiatsu batek justifikatzen baditu, eta proportzionatuak badira”*.

Merkatu-batasuna Bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legean ere jaso dira eragile ekonomikoak ezartzeko askatasunari aplikatzekoak diren printzipio horiek. Hala, aipatutako arauaren 1.2 artikuluan ezartzen denez, *“Merkatu-batasunaren oinarriak eragile ekonomikoen zirkulazio- eta kokatze-askatasuna dira, baita ondasunak eta zerbitzuak Espainiako lurralde osoan modu askean zirkulatzea, agintari bakar batek ere oztopoak jartzeko (zuzenean edo zeharka) aukerarik izan gabe eta jarduera ekonomikoa gauzatzeko oinarrizko baldintzen berdintasuna ere”*.

Hala, ekainaren 30eko 182/1997 Dekretuan eskatutako baldintza batzuk osoki dira aipatutako lege testuetan jasotako printzipioen kontrakoak, justifikaziorik gabe murrizten baitute jardueran hasteko aukera, horretarako interes orokorreko arrazoi premiatsu proportzionaturik izan gabe.

Zehazki, 6. artikuluan jasotako baldintzak, hornidurako erregai kantitateak zuzen neurtzen direla egiaztatzeko neurriei buruz, eta 7. artikuluan jasotakoak, hartan exijitzen baita instalazioa irekia dagoen bitartean han egon behar duela ematen diren zerbitzuen arduradun batek.

Hidrokarburoei buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak, 43. artikuluan, arautzen du petrolio-produktuen txikizkako banaketa. Jarduera horrek bere baitan du, besteak beste, ibilgailuak erregaiez hornitzea horretarako prestatutako instalazioetan. Lege horrek, hirugarren xedapen gehigarrian –Jarraibide teknikoak– ezartzen du ezen Gobernuak, gehienez urtebetean, errege dekretu baten bidez, onetsiko dituela jarraibide tekniko osagarri berriak, bi kasu desberdinei buruz: batetik, ibilgailuak hornitzeko ez diren instalazioak, eta, bestetik, ibilgailuak hornitzeko instalazioak.

Uztailaren 7ko 706/2017 Errege Dekretuaren bidez, MI-IP 04 jarraibide tekniko osagarria onetsi zen: *“Ibilgailuak hornitzeko instalazioak”*. Jarraibide tekniko horrek, XIII. kapituluan, jaso ditu pertsonarik gabeko instalazioak, segurtasuneko neurri bereziak ezarriz, eta aginduz jarraibideen kartel bat izan behar dela bezeroentzat, baita protokolo bat ere, zisternaren gidariak deskarga lanak egiteko, eta larrialdietako telefono bat, 24 orduko arreta duena. Azkenik, aurreikusten du instalazio horiek izanen dutela aldizkako ikuskapen prozedura bat, laneko ekipoetarako eta segurtasunerako, bai eta egindako ikuskapen-bisiten erregistro liburu bat ere.

Hortaz, aipatutako urriaren 7ko 706/2017 Errege Dekretuak ahalbidetzen ditu pertsonarik gabeko instalazioak, beren ezaugarriengatik ezin bete badituzte ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretuko baldintzak, eta, hala, justifikaziorik gabeko hesia jartzen da negozio-modelo horiek ezartzeko, bat ez datorrena aurretik aipatutako lege testuekin.

Jarduerarako baldintza gisa ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretuak jartzen dituen beste batzuk kontsumitzailearentzako informazioari buruzkoak dira, bereziki 3. eta 4. artikulua, beharrezkoak ez direnak, kontuan izanik azaroaren 16ko 1/2007

Legegintzako Foru Dekretua –onetsi zuena Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren Testu Bategina–, hain zuzen ere ondasunen eta zerbitzuen eskaintzaz behar den informazioari buruzkoa (20. artikulua) eta kontratuaren aurreko informazioari buruzkoa (60. artikulua). Bestalde, Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 7. artikulua desleializat jotzen du bere jokabide ekonomikoari buruzko erabaki bat jakinaren gainean hartzeko edo hartu ahal izateko xedeko pertsonak beharrezkoa duen informazioa ez ematea edo ezkutatzea. Horrenbestez, ondorioztatzen ahal dugu bezeroarentzako informazio gehigarriaren eskaera oro –betiere beharrezkotzat jotzen dena baino gehiago den informazioa, kontratatzeke erabakia hartzeari begira, edo kontratuaren ezaugarri nagusiez haratago doana– ez dela beharrezkoa, eta halakoaren falta ezin da hartu engainuzko ez-emateztat, ondasunen eta zerbitzuen merkataritzako eskaintzan.

Azkenik, kontsumitzaileen eskubideak, hornitzen diren erregaien kantitateari eta kalitateari dagozkionak, bermaturik daude aplikatzeko den araudi berariazkoaren bidez. Hala, erregaiak hornitzeko gailuen kontrol metrologikoari dagokionez, aplikatzen dira abenduaren 22ko 32/2014 Legea, Metrologiari buruzkoa, hura garatzen duen ekainaren 3ko 244/2016 Errege Dekretua eta egoki diren jarraibide tekniko osagarriak, eta, erregaiaren kalitatearekin lotuta, kontuan hartu behar da urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez zehazten baitira gasolinaren, gasolioaren, fuel-olioaren eta petrolio-gas likidotuaren ezaugarriak.

Azaldutakoarengatik, uste dugu aipatutako araua indargabetu behar dela.

Iruñean, 2018ko

aren (e)an.

KONTSUMO ETA ARBITRAJE  
ZERBITZUKO ZUZENDARIA.

TURISMO ETA MERKATARITZAKO  
ZUZENDARI NAGUSIAK ONTZAT  
EMANA

César López Dios

Maitane Ezkutari Artieda